

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

28/2018 Mozioa, maiatzaren 9koa, plastiko kutsatzaileen erabilera gutxitzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko maiatzaren 9an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

28/2018 Mozioa, maiatzaren 9koa, plastiko kutsatzaileen erabilera gutxitzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, bere eskumenen arabera, egin ditzala behar diren jarduketa guztiak Europako Batzordeak ezarritako helburuarekin bat egiteko, hau da, EBko merkatuaren plastikozko ontzi guztiak birziklagarriak izan daitezela 2030erako, plastikoen kontsumoa gutxitzea eta mikroplastikoen erabilera murriztea, bai eta paketatze eta enbalatze guztiak berrerabilgarriak edo birziklagarriak izan daitezela 2030erako.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, bere eskumenen arabera, lau hilabetetik beherako epe batean, aurkeztu dezala Batzar Nagusietan neurrien sorta bat aurreko puntuan aipatutako helburuak albat arinen erdiesteko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote hasi ditzala ekoizpena, salmenta, erabilpena eta birziklatzea erregulatzeko lege-tresnak onesteko behar diren izapide administratiboak. Berariaz jaso beharko du erabilpen bakarreko plastikozko objektuak merkaturatzeko debekua. Halaber, eskatzen zaio prestatu dezala horren inguruko lege-proposamen bat.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote neurri espezifikoa hartu ditzala merkaturatzen dagoen plastikoa berrerabili dadila lortze aldera; hala nola, herri eta kuadrilletan ontziak itzultzeko sistemaren proba pilotuak abian jartzea edo erosteko irizpide berdeak ezartzea kontratazio publikoan, halakoetan, lehentasuna emanez birziklatutako materialez egindako objektuei.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 9a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA